



DEBAGOIENKO MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2020.09.22an EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

MAITE ANTON LENO

OÑATI

BOKALAK

GARAZI LARREA ZUMELAGA
AINHOA CABERO GARCIA
MAITANE MUÑOZ GOICOECHEA (telematikoki)
GORKA ARTOLA ALBERDI
AINHOA LETE ZABALETA
CRISTINA MARQUINA IGARZA
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
IZARO ELORZA ARREGI
ANIK ZUBIZARRETA ARTURO

ANTZUOLA
ARETXABALETA
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
BERGARA
ELGETA
OÑATI
OÑATI

ETORRI GABEAK

UNAI ELKORO OIANGUREN
MARIA UBARRETXENA CID
ANDER GARAY ZABALETA
ARITZ MURUA ACHA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA
EUGENIO OTSOA UGALDE

ARETXABALETA
ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
ESKORIATZA
LEINTZ-GATZAGA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2020ko irailaren 22an, 9:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno anderea, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren ohiko bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

Martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapen bigarrenen ezarritakoarekin bat etorrituz (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, COVID-19ri aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloko premiazko neurri osagarriak onartzen dituen, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen duena), Gobernu Juntaren ohiko bilkura honetara hainbat Juntakide bideokonferentziaren bidez konektatu dira, JITSI MEET aplikazioa erabiliz.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU 2020ko uztailaren 28an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- Mankomunitateko gela bat erabiltzen lagatzeko hitzarmena luzatzeko Gurutze Gorriaren eskaera

2016ko irailaren 28an Mankomunitateak Debagoieneko Gurutze Gorriarekin hitzarmen bat sinatu zuen Debagoiengan Errefuxiatu eta Babes Internazionala eskatu duten pertsona eta familiei zuzendutako Programa garatzeko Zaldibar eraikinaren 3. solairuko sukalde ondoko gela urtebetez dohainik erabiltzen lagatzeko.

Orain Gurutze Gorriak hitzarmen hau beste urtebetez luzatzea eskatu du, hau da, 2021eko irailaren 27ra arte.

Gobernu Juntak, eskualdean garatzen ari den programa honetan laguntzen jarraitzeko asmoarekin, eta kontuan izanda momentuz ez dagoela lagatuko gela hau erabiltzeko beste beharrik, aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Debagoieneko Gurutze Gorriarekin 2016ko irailaren 28an sinatutako hitzarmena beste urtebetez luzatzea, hau da, 2021eko irailaren 27ra arte. COVIDaren pandemiaren aurrean beraien protokoloa aurkeztea eskatuko zaie.

2.2.- Hizkuntza Eskolaren Arrasateko gela desplazatua kokatzeko Arrasateko Udalarekin lankidetzak hitzarmena

Debagoiengan, atzerriko hizkuntzak ikasteko eskaria handia da, eta mota guztietako pertsonengan du eragina; ikasten ari diren gazteengan, enpresetako langileengan, lan bila dabiltzan pertsonengan, hizkuntzak ikasteko interesa azaltzen dute, arrazoi kulturalak edota profesionalak direla medio.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Bestalde, atzerriko hizkuntzak jakitea eta titulu ofizial bat izatea, lan-munduan sartzeko eta sustapen profesionala hobetzeko gero eta garrantzia handiagoa hartzen ari dira gure gizartean. Hizkuntzako titulu ofizial bat izateak, kasu askotan, ate berriak irekitzen ditu profesioen arlo ezberdinetan. Izan ere, atzerriko hizkuntzak menderatzea beharrezkoa bihurtu da lan-merkatuan murgiltzeko, enpresa gehienek dutelako harremana kanpoko herrialdeekin.

Hori aintzat hartuta, duela hamabi urte Debagoieneko Euskal eskola publikoa "Goieskolak" Hizkuntza Eskola Ofiziala Debagoienez jartzea eskatu zuen eta horretarako Debagoieneko udalekin eta Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jarri zen.

Goieskolako eta Arrasateko Udalaren ordezkariak Eusko Jaurlaritzako Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariarekin bilerak egindakoan, Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen Eibarreko Hizkuntza eskolako gela desplazatuak Arrasaten kokatzea 2018-2019 ikasturteik aurrera.

Kokapenari dagokionez, bi ikasturtez, hots 2018-2019, 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturtea luzagarri, behin behineko eran, jarduera garatzeko HHIko lokalak egokituz jo zituen Eusko Jaurlaritzak eta HHIko zuzendaritzak eta horrela garatu ditu bere jarduerak.

Alabaina, Covid 19 pandemiaren eraginez, HHIko zuzendaritzak adierazi zion Eibarko hizkuntz eskolari ikasleen arteko gorde beharreko distantziak eta ratioak kontuan harturik, 2020-2021 ikasturtean HHIko zentroaren ikasgela guztiak behar zituztela eta horren ondorioz ez zirela erabilgarri ikasgela horiek Eibarko Hizkuntz eskolarako.

Arrasateko Udalak Hizkuntz eskolaren jarduerarako herrian erabilgarri izan litezkeen hainbat ikasgela begirutzen ibilitakoan, egun, Debagoieneko Mankomunitateko bigarren pisuan dagoen ikasgela egokiena zela uste zuen eta Mankomunitateari eskatu zion ikasgela hori lagatzea.

Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoaren 3.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, hizkuntzen irakaskuntza, hezkuntza berezitat hartuko da. Beraz, udalaren ardura eta erantzukizuna izango da gune fisiko bat eskaintzea zerbitzua eman ahal izateko.

Hau honela izanik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Arrasateko Udalarekin hitzarmen bat sinatzea Mankomunitatearena den Zaldibar eraikinaren bigarren pisuko ikasgela bikoitza Arrasateko Udalari dohainik erabiltzen lagatzeko, bertan Eibarko Hizkuntza Eskolaren gela desplazatu bat kokatzeko, ondorengo klausulen arabera:

"LEHENA.- HITZARMENAREN XEDEA

Debagoieneko Mankomunitateak bere jabegokoa den Zaldibar eraikineko bigarren pisuko ikasgela bikoitza, tolesgarria dena, lagako dio dohainik Arrasateko Udalari bertan Eibarko Hizkuntza Eskolak Arrasateko Hizkuntza Eskolako ikasgela desplazatuaren jarduera garatzeko, hitzarmen honetan zehaztutako baldintzetan.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

BIGARRENA.- LAGAPENAREN BALDINTZAK/ZEHAZTAPENAK

-Bigarren pisuko ikasgela hori utziko dio Mankomunitateak Arrasateko Udalari Eibarko Hizkuntz Eskolak ingeles eskola emateko, astearteetan eta ostegunetan, 15:55etik 20:30etara, 2020-2021 ikasturtean. 2021eko irailean Arrasateko hizkuntz eskolako obrak (Arimazubin) bukatzeke izanez gero, bi aldean adostasunarekin, beste ikasturte bat luzatu ahal izango da lagapen hau.

2020-2021 ikasturtea 2020ko urriaren 1ean hasi eta 2021eko maiatzaren 21ean bukatuko da. Ikasturtea hasi aurretik, 2020ko irailean matrikula epea irekiko da.

- Hitzarmen hau sinatzen denetik, astearte eta ostegun arratsaldeetan, 15:15etik 20:45etara astearteetan eta 15:15etik 19:00etara ostegunetan, Mankomunitateko sarreraren harrera gelan Arrasateko Udalaren langile bat egongo da.

Langile honek matrikula epean informazioa emateaz gain, ondorengo eginkizunak izango ditu:

-Debagoieneko Mankomunitatearen sarrera eta irteerak kontrolatzea eta lagatako ikasgelaren irekiera eta itxiera.

-Hizkuntz eskolari buruzko informazioa ematea bertara hurbiltzen direnei, matrikularen inguruan batez ere, edo telefonoz deitzen dutenei.

-Fotokopiak egitearekin lotutako lanak egitea eta antolatzea.

-Materialaren mantenua, hornitze-lanak egitea.

-Eibarko Hizkuntz Eskola eta Arrasateko udalaren arteko koordinazio lanak egitea.

-Eginkizun hauek betetzeko, aipatu langileak harrera gela honetan Arrasateko Udalak jarritako ordenagailua, fotokopiagailua/inprimagailua eta telefonoa izango ditu.

- Mankomunitateak Arrasateko Udalari bere wifia erabiltzeko baimena ematen dio eta lehendabiziko konexiorako Mankomunitate eta Udalaren tekniko informatikoak harremanetan jarriko dira.

-Halaber, Arrasateko Udalak lagatako ikasgelan pantaila bat, proiektore bat, armairu bat eta lau mahai gehiago jarriko ditu.

HIRUGARRENA.-LOKALAREN ERABILERA

Debagoieneko Mankomunitateak. Arrasateko Udalari egiten dion doako lagapen hau Eibarko Hizkuntza Eskolak Arrasateko Hizkuntza Eskolako ikasgela desplazatuaren jarduera garatzeko da. Helburu hau ez balitz beteko, hitzarmena iraungita geratuko litzateke.

Arrasateko Udalak baimendutako erabileraren arabera erabiliko du lagatako lokala, eta beharturik dago egoera ezin hobean mantentzera. Egindako kalteen



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

erantzule ere bera izango da, eta lagapena bukatzean hartu zuenean bezalaxe itzuli beharko du.

LAUGARRENA.-HITZARMENAREN IRAUPENA.

Lagapen honen iraupena hitzarmen hau sinatzen denean hasi eta 2021eko maiatzaren 21era arte izango da, hau da, 2020-2021 ikasturterako. Arrasateko Udalaren asmoa da 2021ko irailetik aurrera Hizkuntz Eskolako zentroa, egun, Arimazubin Euskaltegiak okupatzen dituen lokaletan kokatzea eta horretarako egiten diharduen Kulturoloren obra bukatuta izan behar da, Euskaltegia eraikin horretara eramateko.

Hizkuntz Eskolaren obrak 2021eko irailerako bukatzeke izanez gero, bi aldeen adostasunarekin, 2021-2022 ikasturterako luzatuko litzateke lagapen hau, 2022ko maiatzean bukatuz.

BOSGARRENA.-LOKALAREN MANTENTZE, FUNTZIONAMENDU ETA INBERTSIO GASTUAK

Lagatako lokalean beharrezko aparatuak jartzea eta mantentzea Arrasateko Udalaren ardura izango da.

Arrasateko Udalak lagatako lokalaren garbiketa gastuak ordaindu beharko ditu, hau da, astean bi ordu, 19,40 €, gehi BEZa, ordu bakoitzeko.

Arrasateko Udalak lagatako lokalean Hizkuntz Eskolako zerbitzurako jarriko dituen tresnen (fotokopiagailu/inprimagailu, telefono, etabar) gastuak bere gain hartuko ditu.

SEIGARRENA- ARRASATEKO UDALAREN ERANTZUKIZUNA.

Arrasateko Udala izango da erantzule bakarra Mankomunitatearen aurrean. Horretarako, Arrasateko Udalak Eibarko Hizkuntza Eskolarekin beraien arteko harremana arautzeko dagokion hitzarmena sinatu beharko du, non, bestek beste, hitzarmen honetan jasotako erabilera baldintzak jaso beharko diren.

Arrasateko Udalak ordaindu beharko ditu lagatako lokalean garatutako jardueraren ondorioz hirugarrengoei eta Mankomunitateari berari eragindako kalte guztiak.

ZAZPIGARRENA.-HITZARMENA AMAITZEKO ARRAZOIAK.

40/2015 Legeak 51. artikuluan aurreikusitako arrazoiez gain, hitzarmena iraungitzeko arrazoiak izango dira hauek:

- Lagapenaren helburua ez betetzea.
- Sinatu behar den kontratuaren klausuletako edozein hautsi izana.
- Zabarkeria lokalak erabiltzean.
- Gutxiegi erabili izana.

Lehenago adierazitako arrazoiren batengatik hitzarmena amaituz gero ez dio emango lagapen hartzaileari ezelako kalte-ordaina izateko eskubiderik.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

ZORTZIGARRENA.-ARAUBIDE JURIDIKOA

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak zuzenduko ditu haren interpretazioa eta garapena.

Hitzarmena interpretatzean eta betetzean sor daitezkeen auziak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ezagutza eta eskumenekoak izango dira.”

- COVIDaren pandemiaren aurrean bere protokoloa aurkeztu beharko du Arrasateko Udalak.

2.3.- Gurasotasun-baimenak parekatzea

2019ko urrian EUDELeko Gobernantza Batzordeak semea edo alaba jaiotzeagatiko, adoptatzeko asmoz zaintzeagatiko, hartzeagatiko edo adoptatzeagatiko baimenen egoera aztertu zuen, baimen horren gutxieneko baldintzak arautzen dituen martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretua- emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukeraberdintasunerako premiazko neurriei buruzkoa- eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateginaren 49 c) artikuluan egin beharreko aldaketa indarrean sartu ondoren.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateginaren bederatzigarren xedapen iragankorrean jasotako luzapen progresiboaren babesean, 2019an jaiotako haurren kasuan, baimena 8 astekoa izango da; 2020an, 12 astera luzatuko da, eta 2021ean, 16 astera.

Araudi horrek aurrerapen handia dakarren arren, EUDELek uste du komeniko litzatekeela haren aplikazioa aurreratzea, eta bi gurasoek dituzten jaiotzagatiko baimenen iraupena parekatzea; izan ere, botere publikoek ezin diote ezikusia egin gizonen eta emakumeen arteko berdintasun errearen eta eraginkorraren alde, erantzunkidetasun-printzipioaren alde, eta bizitza pertsonalaren eta familiarraren kontziliazioa sustatzearen alde dagoen eskaera sozialari.

Horregatik, eta gure inguruko beste instituzio publiko batzuek hartutako erabakiekin bat etorriz, EUDELek egokitzen du Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren bederatzigarren xedapen iragankorrean baimen horretarako jasotako araudiaren aplikazioaren aurrerapena sustatzea, eta, iraupenari dagokionez, 126 egun naturalera arte luzatzea (18 aste), horrela, legegileak lortu nahi duen amatasun-baimenarekin parekatu ahal izateko. Dagokigun kasuan, bat dator aipatutako 126 egunekin, gure UDALHITZ akordio arautzaileko 54. artikuluan jasotakoaren arabera.

Horregatik, EUDELek Euskadiko udal eta mankomunitateei gomendatu die, udal-autonomiari kalterik egin gabe, eta negoziazio kolektiboaren esparruan, dagozkion akordioak har ditzatela bi gurasoentzat seme-alabaren jaiotza, adopzio aurreko zaintza, harrera edo adopzioagatik dauden baimenen iraupena parekatzeko.

EUDELen gomendioa jarraituz, Mankomunitate honek Pertsonal Batzordera eraman zuen gai hau eta, langileen ordezkarien adostasunarekin, aipatu Batzordeak EUDELen gomendioa onartzea proposatzen du.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Pertsonal Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. 2020ko irailaren 22tik aurrera, ama biologikoa ez den beste guraso baten baimenaren iraupena 126 egun naturalekoa izango da, seme edo alaba baten jaiotza, adopzio aurreko zaintza, harrera edo adopzioagatik; horietatik, gertaera eragilearen ondoko sei asteak nahitaezko atsedenaldea izango dira. Baimen hori bi aste luzatuko da, aste bat guraso bakoitzarentzat, seme edo alaba ezindua bada, eta seme edo alaba bakoitzeko, bigarrenetik aurrera, jaiotza, adopzio aurreko zaintza edo harrera anizkoitza bada; eta jaiotza-datatik, adopzio aurreko zaintzaren edo harreraren administrazio-erabakitik, edo adopzioa eratzen duen ebazpen judizialek aurrera hartu beharko da.
2. Aurreko puntuan aurreikusitakoa urratzen ez duen guztian, seme edo alabaren jaiotzagatik, adopzio aurreko zaintzagatik, harreragatik edo adopzioagatik ama biologikoa ez den gurasoaren baimena hartzeko, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateginak 49 c) artikuluan jasotako estipulazioak bete beharko dira, eta, ondorio horietarako, ez dira aplikatuko baimen hori arian-arian aplikatzeko aipatutako lege-arauaren bederatzigarren xedapen iragankorrean aurreikusten diren epeak. Aurrekoa gorabehera, lanaldi irregularra duten langileek, haien lanaldia ziklikoki ondoz ondoko egun batzuetako oporraldiak ezartzen dituzten lan-egutegien bidez banatzen bada, etendako baimena hartu ahal izateko, gutxienez bi aste natural osoko gutxienerako aldiak eskatu beharko dituzte, edo, bestela, proportzionaltasun-printzipioari eutsiko dioten antzeko beste formula batzuk erabili ahal izango dituzte.
3. Akordio honek xurgatu egiten du Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetako langileen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioak (UDALHITZ 2008-2010) 48. artikuluan ezarritakoa, bai eta beste edozein akordio, itun edo xedapenetan ezarritakoa ere, baldin eta baimen gehigarriak ezartzen badira ama biologikoa ez den gurasoentzat, seme edo alabaren jaiotza, adopzio-helburuko zaintza, harrera edo adopzioagatik.

2.4.- 2019ko kosteak; berri ematea

Kontu-hartzaileak Udalek kobratu beharreko zabor tasa ezartzeko kostuen analisiari buruzko bere txostena aurkeztu du.

3.- INGURUMENA

3.1.- Olio edukiontziz hornitzeko kontratazio espedientea; proposamenen sailkapena

2020ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Mankomunitateko Gobernu Juntak erabaki zuen erabilitako sukalde olio biltzeko edukiontziz hornitzeko kontratazio espedientea, gastua eta baldintza agiriak onartzea, zegokion esleitze-prozedura irekiz.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Horretarako emandako epean bi proposamen aurkeztu ziren eta biak baztertu ziren. Mankomunitateko Gobernu Juntak, 2020ko ekainaren 16an egindako bilkuran, huts deklaratu zuen esleitze prozedura hau, baldintza berdinekin esleitze prozedura berri bat irekitzea erabakiz.

Prozedura berri honetan ondorengo hiru proposamenak aurkeztu ziren:

1	AMTEVO MEDIO AMBIENTE, S.L.
2	CERVIC, S.A.
3	LOGICFUN MH, S.L.

Hiru lizitatzaille hauek aurkeztutako dokumentazio teknikoa eta edukiontziazen laginak aztertu ondoren Ingurumen Zerbitzuko arduradunak egindako txosten teknikoa ikusirik, Kontratazio Mahaiak, 2020ko irailaren 11n egindako bilkuran, AMTEVO MEDIO AMBIENTE, S.L. enpresak aurkeztutako proposamena baztertzea erabaki zuen, honako arrazoi hauek direla eta:

- *La cláusula 3.1.6. del pliego de prescripciones técnicas establece que el contenedor “Debe contar con una bandeja inferior estanca para la recogida de posibles derrames de aceite, extraíble para su vaciado y limpieza”. El fondo del contenedor consiste en una base metálica fija, remachada a la estructura del propio contenedor. No es esto lo que se solicita en el pliego, sino una bandeja estanca y extraíble, para que pueda ser fácilmente retirada, vaciada y limpiada. Aparte de la citada base metálica fija, el contenedor no presenta ningún otro elemento que haga la función de bandeja extraíble que se solicita en el pliego, por lo que no se cumple esta condición.*
- *La cláusula 3.1.6 del pliego de prescripciones técnicas establece que “El contenedor debe estar construido de manera que por una rotura del envase del usuario o por cualquier otra causa, los derrames de aceite que ocurran en el interior del contenedor queden retenidos y no alcancen la vía pública.” El contenedor presenta en su parte posterior una gran holgura horizontal, de varios centímetros, entre la base metálica fija y el perfil inferior de la estructura del contenedor. Por otro lado, la puerta para la extracción y reposición del contenedor interior deja una amplia holgura vertical de varios centímetros entre el borde inferior de la puerta y el perfil inferior de la estructura. Estas holguras dejan pasar sin ninguna dificultad posibles derrames de aceite hacia la vía pública. El contenedor por tanto no cumple con esta condición.*

Onartutako bi proposamenen dokumentazio teknikoa eta laginak balioetsi ondoren, Kontratazio Mahaiak onartutako proposamenen “C” gutun azal elektronikoak ireki zituen, eskaintzak segida beharokorrean sailkatuz, Administrazio Klausula Partikularren Agirian jasotako irizpideen arabera.

Kontratazio Mahaiaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Proposamenen ondorengo sailkapena onartzea:



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

	<u>Enpresa lizitatzailerak</u>	<u>Balio judizio baten mendeko irizpideak</u> 50 puntu	<u>Irizpide automatikoak</u> 50 puntos	<u>GUZTIRA</u> 100 puntu
1	CERVIC, S.A.	40	50	90 puntu
2	LOGICFUN MH, S.L.	16,5	49,23	65,73 puntu

2. Sailkapen honen arabera, CERVIC, S.A. enpresak aurkeztutako proposamena denez ekonomikoki onuragarriena, aipatu enpresari hamar egun balioduneko epea ematea, Mankomunitatearen errekerimendu hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, Administrazio Klausula Partikularren Pleguaren 17. 5 klausulan jasotako dokumentazioa aurkezteko.

Bestalde, Kontratazio Mahaiaren baztertze erabakiaren jakinarazpena jaso ondoren, AMTEVO MEDIO AMBIENTE, S.L. enpresak gorako errekurtsio bat aurkeztu du eta Ingurumen Zerbitzuko arduradun teknikoak errekurtsio honi buruzko ondorengo txostena egin du:

“Alega la empresa que disponen como elemento “opcional” de una “batea anti vertido extraíble”, y que ésta batea cumple la función de recoger posibles derrames si el contenedor interior estuviese roto. Señala la empresa que este elemento lo tiene disponible como opcional porque estima que esta casuística se da en un porcentaje por debajo del 1%, y se refiere como fuente de este dato a “datos obtenidos de los gestores de recogida de aceite usado”. Adjunta una hoja de características técnicas en la que se cita en su apartado de “OPCIONAL” el texto “batea anti vertido extraíble”, sin más detalle técnico.

Tal y como se establece en la cláusula 16ª del pliego de cláusulas administrativas particulares:

“SOBRE ELECTRÓNICO “B”.- “CRITERIOS DE VALORACIÓN MEDIANTE JUICIO DE VALOR”

Se incluirá en este sobre la información que mejor describa respecto del contenedor propuesto sus características técnicas y funcionales, así como la documentación que el licitador considere adecuada para acreditar estos extremos, y que permitan una correcta evaluación de los criterios cuya valoración depende de un juicio de valor, señalados en la cláusula 13 de este pliego.

(...)

A la presentación de las proposiciones, el licitador deberá presentar un modelo a escala real, montado y operativo al 100% (incluido contenedor interior), para que los servicios técnicos de la Mancomunidad lo puedan examinar, y realizar las pruebas operacionales que estimen oportunas.

Se recuerda que la muestra es parte de la oferta, por lo que debe reunir todos los requisitos establecidos en el pliego de prescripciones técnicas (salvo los elementos de personalización).

En caso de discrepancia entre la proposición técnica y la muestra presentada, prevalecerá la muestra, tanto a efectos de valoración de proposiciones como de adjudicación, o en su caso, de exclusión.

Estos modelos se entregarán, dentro del plazo de presentación de proposiciones en las siguientes dependencias...”

En la proposición técnica (sobre electrónico “B”) que la empresa presentó a este concurso no aparece referencia alguna a una “batea anti vertido extraíble”. La muestra que la empresa presentó tampoco contiene este elemento.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Las referencias que la empresa realiza en su recurso a que disponen de una “batea anti vertido extraíble”, además de no estar definidas técnicamente y resultar confusas por calificarlas como de carácter “opcional”, se presentan fuera de plazo de presentación de proposiciones y por tanto no se pueden valorar. Si la empresa disponía de este elemento, debió proponerlo y describirlo en la documentación del sobre electrónico “B” y sobre todo debió presentar este elemento en la muestra, para que pudiese ser valorado, todo ello dentro del plazo de presentación de proposiciones. Lo cierto es que presentó una proposición sin un elemento que el pliego de condiciones técnicas establece como obligatorio en su cláusula 3.1.6 (bandeja inferior estanca y extraíble), lo cual constituye un motivo de exclusión.

Además, tal y como se recoge en el acta de la mesa de contratación, existe un motivo adicional para la exclusión de la proposición de la empresa AMTEVO MEDIO AMBIENTE, S.L., tal y como es la existencia de amplias holguras en la base del contenedor propuesto, que dejan pasar sin ninguna dificultad posibles derrames de aceite hacia la vía pública, incumpliendo lo establecido en la cláusula 3.1.6 del pliego de condiciones técnicas. El recurso de la empresa no hace alegación alguna a este motivo de exclusión.

Por las razones descritas en este informe, se concluye que las alegaciones formuladas por la empresa AMTEVO MEDIO AMBIENTE, S.L. deberían ser rechazadas.”

Txosten honetan jasotako arrazoiak ikusirik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. AMTEVO MEDIO AMBIENTE, S.L. enpresak aurkeztutako gorako errekurtsioa ezestea.

4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

4.1.- GOIAZ lanbide heziketa ataria egiteko kontratu txikia

“GOIAZ” Debagoieneko lanbide heziketaren web ataria egiteko lanak kontratatzeke Garapen Ekonomikorako Agentzia Zerbitzuko arduradunaren txostena ikusirik, eta kontuan izanda azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak, 118.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, hau kontratu txikia dela.

Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Gastua onartzea, eta IRUDINET enpresari Debagoieneko lanbide heziketaren web ataria egiteko kontratu txikia esleitzea 11.550 €ko prezioan, gehi BEZa, bere proposamenean zehaztutako baldintzetan.

4.2.- 2020-2021 ikasturtean Eskolatzeko Osagarriko Programa garatzeko diru-laguntza eskaera

2020ko irailaren 1eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Hezkuntzako sailburuaren 2020ko ekainaren 30eko Agindua argitaratu zen, zeinaren bidez deialdia egiten baita 2020-2021 ikasturterako itunpeko ikastetxeetan eta berriazko ikastetxeetan eskolatzeko osagarriko programak baimentzeko eta diruz laguntzeko prozeduretarako, 2. lerro estrategikoaren barruan: hezkuntza inklusiboa eta aniztasunaren trataera.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Kontuan izanda Mankomunitate hau dagoeneko hasi dela 2020-2021 ikasturteko eskolatzeko osagarriko programa garatzen, ARIZMENDI KOOP. ELKARTEArekin sinatutako kontratu administratibo baten bitartez, aurrez zegokion prozedura jarraitu ondoren, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- 2020ko irailaren 1eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako Hezkuntzako sailburuaren 2020ko ekainaren 30eko Aginduan ezarritako baldintzetan 2020-2021 ikasturtean Eskolatzeko Osagarriko programa emateko diru-laguntza eskatzea.

5.- LEHENDAKARITZA

5.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

20/42.- 2020ko ekaineko nomina arrunta onartzea ondorengo laburpenaz:

Langileen ordainsariak	Soldata	Gizarte segurantza	Elkarkidetzeta	Km	Atxikipenak	Likidoa
Karguak	3.060,00 €	1.156,70 €	0,00 €			
Funtzionarioak	57.266,13 €	16.133,52 €	1.943,82 €	2,32 €		
Interinoak	26.169,04 €	8.434,91 €	126,78 €			
Laboralak	45.231,32 €	18.955,28 €	1.021,74 €			
Guztira	131.726,49 €	44.680,41 €	3.092,34 €	2,32 €	35.774,95 €	95.953,86 €

20/43.- 1.- Garbiguneko zainzaileen eta antzekoen lan-poltsa sortzeko hautaketa-prozesuaren deialdi publikoa egitea.

2.- Aipatutako deialdia arautuko duten oinarriak onartzea.

20/44.- 1.- Turismo teknikarien lan-poltsa sortzeko hautaketa-prozesuaren deialdi publikoa egitea.

2.- Aipatutako deialdia arautuko duten oinarriak onartzea.

20/45.- 1.- Mankomunitatearen instalazioak mantentzeko kontratua ELECNOR, S.A. enpresari esleitzea ondorengo prezioan:

- Prebentziozko mantentze lanen urteko prezioa: 4.085 €/urteko, gehi 857,85 €, BEZaren %21ari dagokiona. Guztira: 4.942,85 €.
- Konponketako mantentze lanen orduko prezioa: 26,56 €/urteko, gehi 5,58 €, BEZaren %21ari dagokiona. Guztira: 32,14 €.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2.- Aipatu enpresarekin dagokion kontratua sinatzea erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 15 laneguneko epean.

3.- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 62. artikulua betez, Belén Txintxurreta Iparragirre, Mankomunitateko behin behineko idazkaria, izendatzea kontratu honen arduradun.

4.- Enpresa esleipendunak adierazitakoaren arabera, kontratu honen xede diren lanetan arituko diren langileei Gipuzkoako Industria Siderometalurgikoaren Hitzarmen Kolektiboa aplikatuko zaie.

20/46.- Lehenengoa.- Onartzea Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kap	Izena	Euroak
.		
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	29.210,80
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		29.210,80

SARRERAK

Kap.	Izena	Euroak
4 (SARRERAK)	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	29.210,80
FINANTZAKETA GUZTIRA		29.210,80

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailetza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Mankomunitatearen batzarrari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

20/47.- 20/16 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERROGEITA HAMASEI MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMAR EURO ETA HOGEITA BI ZENTIMO (56.330,22 €).

20/48.- 1.- GRUPO S21SEC GESTIÓN, S.A. enpresa (IFK: A20686150) izendatzea DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEKO datuak babesteko ordezkari, tratamenduaren arduradun den aldetik.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2.- Datuak babesteko ordezkariaren harremanetarako datuak argitaratzea eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinaraztea, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 37.7 artikuluekin bat etorritz.

20/49.- 20/17 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira LAUREHUN ETA HIRUROGEITA ZAZPI MILA ETA HOGEI EURO ETA HOGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (467.020,33 €).

20/50.- 20/18 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HIRU MILA EHUN ETA BI EURO ETA BERROGEITA ZAZPI ZENTIMO (3.102,47 €).

20/51.- 20/19 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERROGEITA HIRU MILA ETA HIRUROGEI EURO ETA HOGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (43.060,33 €).

20/52.- LEIRE PARRA turismo teknikariari UDALHITZen 62. artikuluan jasotako norberaren arazoetarako ordaindu gabeko baimena ematea, 2020ko abuztuaren 3tik irailaren 6ra arte.

Bere ordezkapena egiteko, lan poltsa erabiliz, IGONE ZUBIAGA MENDIALDUA izendatzea bitarteko funtzionario, 2020ko abuztuaren 3tik irailaren 6ra. Hileko 2.797,94 €ko ordainsari gordina emango zaio, honela banatuta:

- Soldata: 1000,45 €. (A2)
- Lanpostu-mailako osagarria: 427,95 €. (18)
- Berriazko osagarria: 1.369,54 €.

20/53.- 2020ko uztailako nomina arrunta onartzea ondorengo laburpenaz:

Langileen ordainsariak	Soldata	Gizarte segurantz	Elkarkidetz	Km	Atxikipenak	Likidoa
Karguak	3.060,00 €	1.156,70 €	0,00 €			
Funtzionarioak	57.378,37 €	16.237,69 €	1.943,82 €	90,60 €		
Interinoak	21.918,13 €	7.636,82 €	126,78 €			
Laboralak	51.607,83 €	21.214,66 €	1.021,74 €	109,91 €		
Guztira	133.964,33 €	46.245,87 €	3.092,34 €	200,51 €	35.636,58 €	98.528,26 €

20/54.- 20/20 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERREHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (299.997,97 €).

20/55.- 2020ko abuztuko nomina arrunta onartzea ondorengo laburpenaz:

Langileen ordainsariak	Soldata	Gizarte segurantz	Elkarkidetz	Km	Atxikipenak	Likidoa
Karguak	3.060,00 €	1.156,70 €	0,00 €			
Funtzionarioak	55.540,16 €	15.456,72 €	1.943,82 €			
Interinoak	24.608,40 €	8.620,70 €	126,78 €			
Laboralak	49.231,60 €	20.478,76 €	1.021,74 €			
Guztira	132.440,16 €	45.712,88 €	3.092,34 €	0,00 €	35.595,06 €	96.845,10 €



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

20/56.- 1.- Epeleko hondakin ez arriskutsuen zabortegian atmosferara egindako gas emisioak eta inmisioak neurtu eta kontrolatzeko kontratua EUROCONTROL, S.A. enpresari esleitzea urteko 11.760 €-ko prezioan, gehi 2.469,60 €, BEZaren %21ari dagokiona.

2.- Esleipen honen aurka kontratazioaren alorreko errekurtsu berezia jar daitekeenez, formalizazioa ezingo da burutu esleipenaren jakinarazpena lizitatzailerei bidali eta hamabost egun baliodun igaro aurretik.

3.- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 62. artikulua betez, Maddi Altuna Odriozola, Ingurumen Zerbitzuko arduradun teknikoa, izendatzea kontratu honen arduradun.

4.- Enpresa esleipendunak adierazitakoaren arabera, kontratu honen xede diren lanetan arituko diren langileei "Eurocontrol, Sociedad Anónima" enpresaren Hitzarmen Kolektiboa aplikatuko zaie.

20/57.- 1.- Garbiguneetan eta bestelako bilketa zerbitzuetan jasotako obra txikietako eraikuntza eta eraispenekeo hondakinak kudeatzeko kontratuaren 1 lotea, harri hondakin hautatuak, NAPARRA BERGARA, S.L. enpresari esleitzea ondorengo prezioan: 27 €/tonako, gehi 2,7 €, BEZaren % 10ari dagokiona.

2.- Garbiguneetan eta bestelako bilketa zerbitzuetan jasotako obra txikietako eraikuntza eta eraispenekeo hondakinak kudeatzeko kontratuaren 2 lotea, EEH ez arriskutsu nahastuak, BAÑU-ETXE, S.L. enpresari esleitzea ondorengo prezioan: 30,50 €/tonako, gehi 3,05 €, BEZaren %10ari dagokiona.

3.- Kontratu honen aurka kontratazioaren alorreko errekurtsu berezia jar daitekeenez, formalizazioa ezingo da burutu esleipenaren jakinarazpena lizitatzailerei bidali eta hamabost egun baliodun igaro aurretik.

4.- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 62. artikulua betez, Maddi Altuna Odriozola, Ingurumen Zerbitzuko arduradun teknikoa, izendatzea kontratu honen arduradun.

4.- Enpresa esleipendunek adierazitakoaren arabera, kontratu honen xede diren lanetan arituko diren langileei ondorengo hitzarmen kolektiboa aplikatuko zaie:

- BAÑU-ETXE, S.L.: *"Convenio colectivo de recuperación y reciclado de residuos y materias primas secundarias"* delakoa.
- NAPARRA BERGARA, S.L.: Gipuzkoako metalaren merkataritzako hitzarmen kolektiboa.

20/58.- 2020ko uztailaren 15eko 133 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako 2020ko uztailaren 7ko lehendakaritzaren ebazpen bitartez, erabaki zen onartzea garbiguneko zaindarien aldi baterako beharizanak eta antzeko beste premia batzuk asetzeko lan poltsa bat sortzeko hautapen prozesuaren deialdi publikoa.



DEBAGOIENKO MANKOMUNITATEA

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, eta aurkeztutako instantziak eta hautagaiak ekarritako dokumentazioa aztertu ondoren eta deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera.

ERABAKI DUT:

1.- Onartutako eta baztertutako hautagaien behin behineko zerrenda hau onartzea:

Onartuen zerrenda

1. AGIRRE BARRENA JON
2. AIZPURUA URBIETA SAIOA
3. ALBA URDANGARIN EVA MARIA
4. ALBERDI GARRALDA AITOR
5. AMENABAR ALBA SIMÓN
6. ANDUAGA GARAY JON
7. ARAMENDI IBAETA ESTIBALITZ
8. ARANBURU URIBARREN IMANOL
9. ARITZABALETAK OKINA ASIER
10. ARRIBILLAGA BERETXINAGA XABIER
11. ARRUTI EZEITZA IMANOL
12. ASKASIBAR LABOA ORKATZ
13. ASTIGARRAGA GURIDI LUKENE
14. ASTIGARRAGA UZKUDUN BEÑAT
15. AXPE INDA AITZOL
16. BELTZA ARTZA HASIER
17. BLAZQUEZ ARANA IAGOBA
18. CALONGE PASCUAL AINHOA
19. DA COSTA FRUTOS VANESA
20. ECHENAUZIA IDIGORAS JOSUNE
21. ELORTZA ODRIOZOLA KEPA
22. FUENTES BECARES JORGE
23. GARAY AGINAGALDE MAIDER
24. GARRO GÓMEZ DE SEGURA AINHOA
25. GURIDI GRISALEÑA AITOR
26. HERRATE ARANA MIREN OSANE
27. INTZA BEGIRISTAIN AITOR
28. IRIARTE GOENAGA INAXIO JABIER
29. LARREA HERRERO HASIER
30. LETONA SANCHEZ ANDER
31. LETURIA DELFRADE ANE
32. LÓPEZ DE MUNAIN ORTUBAY IBAN
33. MAESTRO WATSON REBEKA
34. MANTXOLA AKIZU ANDER
35. MARISCURRENA DIEZ IÑAKI
36. MENDIZABAL VITORIANO IÑAKI
37. OLACIREGUI AMENABAR MARTÍN
38. OÑATIBIA LEHR MIREN EDURNE
39. ORTUBAI BALANTZATEGI NORBERTO
40. RIELO AYASTUY JOSEBA
41. RUIZ DE AZUA LARRAÑAGA NEREA
42. SALVIDE DEL CAMPO SILVIA



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

43. SANCHEZ RUIZ MIKEL
44. URBIETA EIZAGIRRE OROITZ
45. URCELAY IRIZAR JUAN IGNACIO (1)
46. URRUZMENDI ALDALUR AITZIBER
47. ZABALA AGUIRRE UNAI

Baztertuen zerrenda

1. ERRASTI ELORZA JESUS MARI (1)
2. SERTUTXA GOROSTIZA JON ANDER (2)
3. UNAMUNO BENÍTEZ IGOR (1)

Baztertzearen arrazoiak:

- (1) Euskararen 2. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea ez egiaztatzea.
- (2) Epez kanpo.

Zerrenda honen aurka interesatuek erreklamazioak aurkez ditzakete edo zerrendatik kanpo utzi dituzten akatsak zuzendu 5 laneguneko epean, hau Mankomunitatearen web orrian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. (www.debagoiena.eus)

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda hau behin-betiko bihurtuko da.

2.- Epaimahai Kalifikatzaileko kide honako hauek izendatzea:

Titularrak

Lehendakaria:

- Luis Lonbide Sagastizabal, Ingurumen Zerbitzuko ustiapen arduraduna.

Mahaikideak:

- Mikel Jaio Eiguren, Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuko teknikaria, karrerako funtzionarioa.
- Andoni Larrinaga Barandiarán, Mankomunitateko garbiguneko zaindaria.

Idazkaria

- Belén Txintxurreta Iparragirre, Mankomunitateko behin behineko Idazkaria.

Ordezkoak

Lehendakaria:

- Mikel Jaio Eiguren, Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuko teknikaria, karrerako funtzionarioa.

Mahaikideak:



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- Kristina Iraolagoitia Otxandiano, Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuko teknikaria, karrerako funtzionarioa.
- José Luis Mena Navarro, Mankomunitateko garbiguneko zaindaria.

Idazkaria

- Ander Elortondo Bergaretxe, Mankomunitateko Administrazio Orokorreko Teknikaria.

3.- Oposizio faseko ariketa bakarra urriaren 8an, ostegunean, goizeko 9:00etan, egingo da Mankomunitatearen egoitzan. (Nafarroa Etorbidea, 17.- ARRASATE)

20/59.- 2020ko uztailaren 15eko 133 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako 2020ko uztailaren 7ko lehendakaritzaren ebazpen bitartez, erabaki zen onartzea turismo teknikarien aldi baterako beharrak asetzeko lan poltsa bat sortzeko hautapen prozesuaren deialdi publikoa.

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, eta aurkeztutako instantziak eta hautagaiek ekarritako dokumentazioa aztertu ondoren eta deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera.

ERABAKI DUT:

1.- Onartutako eta baztertutako hautagaien behin behineko zerrenda hau onartzea:

Onartuen zerrenda

1. ANGULO CATEDIANO SERGIO
2. ARANZABAL ABAITUA IOSU
3. ARRESE MURGUZUR SUSANA
4. AZURZA SORRONDEGUI LEIRE
5. BEITIA ARZAMENDI ENERITZ
6. CASTRO GARCIA MARIA TERESA
7. DIEGO JAUREGI-ARRABURU ITSASO
8. ESKUDERO ESNAOLA UDANE
9. GARAI URTEAGA LEIRE
10. GARATE OLABE GARAZI
11. HERAS MORENO SOIARTZE
12. IZAGUIRRE BROSXA XABAT
13. LARRAÑAGA GONZALEZ GARAZI
14. LARREA HERRERO HASIER
15. LARRUZZEA OARBEASKOA IRUNE
16. LOPEZ PARAMIO ESTHER
17. PARADELA ORBEGOZO GARBIÑE
18. RUIZ DE AZUA LARRAÑAGA NEREA
19. RUIZ NIETO ANA ISABEL
20. TRIGUERO FONSECA MIREYA
21. URIONABARRENECHEA GABIÑA URKO
22. URRESTARAZU GORDO EDUARDO
23. ZUBIAGA MENDIALDUA IGONE
24. ZUMALDE KORTABARRIA M. LIDE



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Baztertuen zerrenda

1. GRILLE ROBLEDO RAQUEL

Baztertzearen arrazoiak: euskararen 3. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea ez egiaztatzea.

Zerrenda honen aurka interesatuek erreklamazioak aurkez ditzakete edo zerrendatik kanpo utzi dituzten akatsak zuzendu 5 laneguneko epean, hau Mankomunitatearen web orrian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. (www.debagoiena.eus)

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda hau behin-betiko bihurtuko da.

2.- Epaimahai Kalifikatzaileko kide honako hauek izendatzea:

Titularrak

Lehendakaria:

- Koldo Azkoitia Zubizarreta, Garapen Ekonomikorako Agentzia Zerbitzuko arduraduna.

Mahaikideak:

- Ana Heriz Igarza, Mankomunitateko Turismo arloko arduraduna.
- Inés Cáceres Guillén, Mankomunitateko Turismo arloko teknikaria.

Idazkaria

- Belén Txintxurreta Iparragirre, Mankomunitateko behin behineko Idazkaria.

Ordezkoak

Lehendakaria:

- Rakek García Motrel, Mankomunitateko Garapen Ekonomikorako Agentzia Zerbitzuko karrerako funtzionarioa.

Mahaikideak:

- Inés Cáceres Guillén, Mankomunitateko Turismo arloko teknikaria.
- Leire Parra Alonso, Mankomunitateko Turismo arloko teknikaria.

Idazkaria

- Ander Elortondo Bergaretxe, Mankomunitateko Administrazio Orokorreko Teknikaria.



DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

3.- Oposizio faseko ariketa bakarra, idatzizko proba teoriko-praktikoa, urriaren 2an, ostiralean, goizeko 9:00etan, egingo da Mankomunitatearen egoitzan. (Nafarroa Etorbidea, 17.- ARRASATE)

20/60.- 20/21 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira EHUN ETA BERROGEITA HEMERETZI MILA BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA HEMERETZI EURO ETA HOGEITA HAMAIIKA ZENTIMO (159.979,31 €).

6.- GALDE-ERREGUAK

- DEBAGOIENA TALENT HOUSE proiektua; lehendakariak D2030 egitasmoaren markoan garatuko den aipatu proiektuaren berri eman du. Mankomunitateak ere parte hartzen du proiektu honetan.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 10:30etan, bukatutzat eman da bilkura.

LEHENDAKARIA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA